

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
UNAI CUEVAS

Balmaseda (Bizkaia)

Erdi Aroko oihartzunak

Menako Lope Sanchezek Balmasedako hiribildua sortu zuen 1199. urtean, Logroñoeko foruaren bitartez. Hala, Bizkaian sortutako lehenbiziko hiribildua da ondoko lerrootan bisitatuko duguna. Merkatu-hiri eta kostaldeko Done Jakue bidearen gune garrantzitsua izaki, Zubi Zaharra bezain eraikin esanguratsuak utzi zituen Balmasedan Behe Erdi Aroak.

Urteak igaro ahala, Erdi Aroko garai oparoak joan zirenean, balmasedar askok hiritik kanpo alde egin behar izan zuten. Mexikora, Kubara eta Perura abiatu ziren, zilar ustiakuntzan, merkataritzan nahiz meataritzan aritzera, eta handik itzultzerakoan indiano bihurtu ziren. Ameriketako pilatutako dirutzaren zati bat fundazioak sortzera bideratu zuten, eta gaur egun, garai haietan egindako hainbat eraikin ikusteko aukera dugu, oraindik zutik.

Indianoak bizi ziren etxeak ere ikus daitezke La Magdalena pasealekuan.

Hiriak, jatorrian, lau kale baizik ez zituen: Aldapa, Hedegile, Erdikoa –orain Pío Bermejillo– eta Zaharra, gaur egun Martin Mendia izenekoak. Ikusten denez, hiria azpiegituraz hornitu zituztenak ez dituzte ahaztu. Horren adibide Mendia jauna dugu. Hiriko seme kutuna izendatu zuten, eta beraren irudia San Severino plazaren erdian kokaturik dago.

Zubi Zaharra, Balmasedako ikonoa

Dagoeneko hiriaren ikur bihurtu den Kadagua ibaiaren gaineko Zubi Zaharra (edo Muzarena) aipatzea derrigorrezkoa da. Ez dugu haren egilearen izena ezagutzen, baina hori ez da oztopoa Bizkaiko Erdi Aroko arkitekturaren erreferentzia nagusietakoa izateko. Monumentu nazional izendatuta dago, egon ere.

Zubiak Done Laurenti auzora jotzen du. Judutarren bizilekua izan

Zubi Zaharra. Antzina Gaztela eta Kantauri itsasoa lotzen zituen merkataritza-ibilbideak hemen zuen nahitaezko igarobideetako bat.





Ezkerrean, Balmasedako indianoek eraikitako etxe ugarietako bat. Goian, Martin Mendiaren estatua, San Severino plazaren erdian.

zen hura, 1486. urtean hiritik bota zituzten arte. Handik hurbil, Santa Klara monumentu multzoa ikus daiteke. Elizak eta komentiak osatzen dute, eta bigarrena hotela da orain. Berrito ere erdigunera hurbilduz, Martin Mendia kalean barna, San Joan Moraleko eliza aurkituko dugu. XV. mendeko eraikin horretan dago gaur egun Balmasedako Museo Historikoa. Aurrerago, ezkerretara, Horcasitas Jauregia dago, 1841. urtera arte errege-aduana izandakoa. Urte hartan, Lehen Karlistaldia amaitu eta gutxira beraz, kostaldera eramán zuten aduana, Balmasedari hainbat mendez izandako funtzioa kenduz.

Hedegile kaletik behera San Severino plazara iritsiko gara. Hiriko biztan-

Aste Santua, Erdi Aroko merkatua eta putxerak

Gaur egungo Balmaseda toki entzutsua baldin bada, hiru ospakizunei esker da. Batetik, Aste Santuan izaten diren prozesioek ospe handia lortu dute Euskal Herriko mugetatik kanpo. Hiritarrek Jesusen pasioa gogoratzen dute urtero, garai hartako janzkerekin kalera ateraz.

Historian aurrera eginez, Erdi Aroa ere oso gogoan dute balmasedarrek. Ez da harritzekoa, hiria orain dela 800 urte baino gehiago sortu zen eta. Zortzi mende askotan betetzen ez direnez, urtemuga hori ospatzeko Erdi Aroko merkatua antolatzea bururatu zitzairen. Geroztik, urtero, asteburu osoa irauten duen garai haietako merka-

tuaren mozorroa janzten du hiriak, izugarrizko arrakastaz gainera. Azken urteetan, 150.000 bisitari baino gehiago hurbildu dira bi egun horietan antolatutako emankizunak ikusteko asmoz.

Festa eta ospakizunarekin jarraiki, Putxeren Jaia ospatzen dute baita ere. Lapiko berezietan egiten den indaba, urdail, txorizo eta odoloste platera da putxera. Industrializazio garaiko ohitura da. La Robla trenbideko makinistek, negu gorrian ezin zuten trenetik jaitsi, lapiko edo putxera delakoetan berotzen zuten janaria, trenaren lurruna erabiliz. Eta indabei laguntzeko, zer hobe bertako txakolina baino. XV. mendetik lantzen da Balmasedan txakolina; Done Jakue bidetik zetozen fraide frantziarrek ekarria omen. Mende batzuk geroago, 1892an, sortu zen La Encartada txapel-fabrika, hirigunetik hiru kilometrorra. La Encartadak 1992an itxi zituen atea, eta iazko urtarriletik museo bihurtua dugu. Hain antzinakoak ez diren zenbait bizimodu museo-gai baitira gaur. ■

20, 30, 35, 40... eta 50 urtera arteko hipotekak. Tasazio-balioaren %100eraino eta abalik gabe.

zeure erara
bbk
hipotekak

etxetik botako zaituzte

